

BANDOA (B33-2021)

2022-2023 URTEKO EGOILIARREN BEREIZGARRI BANAKETA

Azaroaren 15etik aurrera, egoiliarren aparkalekuen bereizgarri berriak (bineta berdeak) banatuko dira 2022-23 urteetarako. Banaketa Udaletxeko bulegoetan egingen da, bulego-ordutegian (8:30-13:30), eta NANA aurkeztu beharko da bereizgarria jasotzeko eskubidea egiaztatzeko.

Bereizgarria banakakoa eta besterenezina da; beraz, eskubidearen titular bakoitzeko zenbakidun bineta bakarra emanen da, eta jasotze-agiria sinatuko da. Bulegoetara joaterik ez duenak baimena eman diezaioke hirugarren bati, bineta jasotzeko. Hirugarren horrek baimen sinatua eman beharko du, eta, bertan, eskatzailearen izen-abizenak, NAN (edo IFK) eta ibilgailuaren matrikula jaso beharko ditu, baita jasotzeko baimena duen pertsonaren izen-abizenak eta NANA ere. Gainera, eskatzailearen NANaren kopia aurkeztu beharko da paperean edo mugikorrean, eta jasotze-agiria sinatuko du.

Gogoan izan bereizgarri hori banakakoa dela eta ezin zaiela hirugarrenei transferitu, eta iruzurrezko erabilera (horretarako eskubiderik izan gabe) zehatu egingen dela. Gainera, aurreko haizetakoan behar bezala itsatsita jarri beharko da, kanpotik ikusteko moduan, behar bezala ez jartzeak plaza horietan aparkatzeko eskubidea baliogabetzen baitu.

Bereizgarri berriak entregatzen diren unetik aurrera izanen dira baliozkoak, eta une horretatik aurrera jarri ahal izanen dira zaharraren ordeztu. 2020-21 urteetako bereizgarri zaharrek, aldiz, 2021eko abenduaren 31ko 24:00etan galduko dute balioa, eta, beraz, 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera, berriak behar bezala jarriak izan beharko dira erreserbatutako plazetan aparkatu ahal izateko.